

KIROLAK: ANDER CORCUERA JARAMAN

# Arrasate

P R E S S

2001.eko  
urriaren 11a  
557. zenb.

**Arrasate Press**

**BERRIA**

(20, 21 eta 22 orrialdeak)



Haizetakoak 1,46 m<sup>2</sup>.

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berrian garrantzitsuen ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobea sortzen dute, erosotasunaren aukera guztiertara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

**PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.**

## ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

## EKOMOBIL

Zaldispe auzoa z/g  
Tel.: 943 79 50 71  
ARRASATE

**307**   
**PEUGEOT**

## urteurrenak

### Goi mailako lanbide heziketa

■ 80. zenb.

1990eko urriaren 13an idatzi genuen...

Hezibide Heziketa Elkarteak heziketa profesionalerako ikastaroak antolatu ditu 90-91 ikasturterako. Ikasketa horiek zuzenduta daude unibertsitatean sarbidea izateko prestakuntza jaso duten ikasleei, eta Goi Batxilergokoek izango dute lehentasuna, baita arlo profesional jakin baten espezialdu gura duten unibertsitateko tituludunek ere. Orain arte, kontuan hartzekoa da ikasketa horiek izan duten harrera ona, eta, gauzak horrela, Heziketa Sailak Hezibideko hainbat zentrotan zenbait modulu ematea onartu du.



### Euskaltegien matrikulazioa

■ 80. zenb.

1990eko urriaren 13an idatzi genuen...

Euskaltegietan ere hasi da 90-91 ikasturtea, eta matrikula aldia amaituta, talde ugari eta hainbat maila izango dira Arrasateko bi euskaltegietan. Udal Euskaltegian 30 talde antolatu dituzte. Eskolak euskaltegian bertan emateaz gain, Ikerlan, Aurki eta Gelman ere ematen dituzte.

AEKri dagokionez, 10 talde daude Arrasaten eta lau Bergaran; guztira, 115 ikasle Arrasaten eta 60 alboko herrian.

### Zaharren egoitzetan ekintzak

■ 80. zenb.

1990eko urriaren 13an idatzi genuen...

Zaharren egoitzetan hasi dira urteko jarduera berriak. Iaz Erguinen eta Abaroan egindako eskulanean erakusketa egin zen martitzenean, eta hamar lagun lanak izan ziren ikusgai. Hiru dimentsioko margolanak, portzelana errusiarrak, igeltsua, galterdiz egindako loreak, eta abar ikusgai.

## besteek esana



Oraindik ezin dut esan zer nahiago dudan, telebista edo irratia, baina niretako kuttunena irratia da. Kaskoak janzten ditudanean eraldatu egiten naiz.

Irratitik gustatzen zaidana da jendearekin berba egitea, entzuleek deitzea, gurekin berba egitea... Oso xarma berezia dauka.»

Kaitin Allende

SORGINEN LARATZA SAIOKOA

**Arrasate Irratia**

(2001eko urriaren 9a)

## aurkibidea

- Lehen begiratu . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . 4
- Herritarren berbak . . . . . 5
- Astearen errepasoa . . . . . 6
- Inkesta . . . . . 7
- Orain eta hemen . . . . . 8/10
- Txutxumtxuak . . . . . 12/14
- Maritxu Kajoi . . . . . 18/19
- Asteko gaia . . . . . 20/22
- Kirolak jokoan . . . . . 23/25
- Kulturaren txokoa . . . . . 26/27
- Beheko dendatik . . . . . 28
- Uhinetan barrena . . . . . 29
- Foto zaharra . . . . . 30

Urriaren 11tik 28ra bitartean, Teresa Díaz margolariaren erakusketa izango da Hamaikak



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar. (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakilea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Iulen Aranguren-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.600. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundirearen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## ZERBITZUAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguatorialdea . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
asteburu eta  
jai egunetan . . . . . egun osoa  
Arrasate  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzaileak . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

<b>Zapatua</b>	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
<b>Domeka</b>	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

<b>Jaiegun bezpera eta zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## herri batzarra

Urriaren 15ean, herri batzarra izango da Arrasateko elkarteetan, 19:00etan. Gaia honakoa

izango da: *Ildo politikoari egindako ekarpenen eztabaida eta bozketa.*

## karrantzara bidaia

Ekin Emakumeak elkarteak Karrantzara bidaia antolatu du urriaren 27rako. Izene-

matea urriaren 19a baino lehenago egin behar duzue, elkarteetan bertan.

## soldadura ikastaroa

Udalak emakumeei zuzendutako 400 orduko soldadura ikastaroa antolatu du. Aretxabaletako Institutuan emango dira eskolak, urriaren 15etik martxoaren 18ra,

08:15ean. Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo Udaletxera edo deitu 943790900 telefonora.

## erakusketa harresin

Teresa Díaz margolariak erakusketa du zabalik Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Urriaren 28ra arte izango da zabalik. Bisita orduak

honakoak dira: lanegunetan, 18:00- 20:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

## antzerki tailerra

AED elkarteak luzatu egin du antzerki taileraren izena emateko epea. Urriaren 17a izango da azken eguna. Antzerki ikastaro hori 17 urtetik gorako guztiei zuzendua dago. Ize-

na emateko, jo AED elkartearen egoitzara, Pablo Uranga kalean, edo deitu 943771228 telefonora.

## perkusio ikastaroa

Rock perkusio ikastaroa antolatu du Iñaki Bruñak. Urriaren izango da. Argibideetarako

edo izena emateko, deitu 943798025 telefono zenbakira.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Egubakoitza, 21

- Azkoaga, Iturriotz

### Zapatua, 22

- Corcuera, Aranbarri

### Domeka, 23

- Irizar, Erguin

### Astelehena, 24

- Amezua, Santa Marina

### Martitzena, 25

- Zabala, Zarugalde

### Eguaztena, 26

- Ruiz, Magdalena

### Eguena, 27

- Morales, Araba

# ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32 1º I • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



# Herritarren berbak

## Ergelkeriaren globalizazioa

Antxon Mendizabal/ Irakaslea

Hipokresia mediatiko hutsean oinarrituta dagoen munduko sentsibilitatearen banaketa islatu egin da gaur egungo egoeran. New York-eko ekintza tragikoarekin ari-maren zirrara sentitu duen gehiengoak, inolako sentsibilitaterik ez du erakutsi, askoz hiltzaileago izan diren Sudanen egindako bonbardaketa tragikoagatik, Iraken aurka egindako gose-enbar-goagatik edo Txetxeniarren aurka bideratutako genozidioagatik. Hipokresia mediatikoak erakusten digun mezu garbiak honelaxe dio: biktimak ez dira guztiak berdinak; ezta herrien eskubi-deak ere.

Ergelkeria erraldoia, Bushek talibanen aurka antolatutako Erdi Arokoen moduko gurutzada inperialista. Europa Batuak eta Nazio Batuak partaide bihurtu dira. Etorriko denaren aurrean, Afganistanen etxetik ihes egindako jendetzaren tamainak (3,5 milioi pertsona) adierazten du terrorearen neurria. Proporzio bereko alderaketa egiten badugu, EEBBetan 50 milioi lagun leku aldaketa motibatuko duen terrorea izango litzateke.

Gizaldi berri honetan, eta bukatutakoaren joerari jarraituz, gatazka sozio-politikoak ez dira agertzen herri industrializatueta-ko klaseen arteko gatazka bidez, baizik eta estatu gabeko herrien askapen nazionalera-ko gatazka eta zibilizazioen arteko gatazka

modura. Horren barnean, Lehen eta Hirugarren Munduaren arteko kontraesanak gatazka bakoitzari izaera ematen dio.

Bushek faktore politiko hauen eragina ekidin nahi du; eta ongia Estatu Batuarekin identifikatu eta gaizkia deabru terroristarekin. Baina herri zapalduetan eta mendealdarrak ez diren zibilizazioetan (islamiar zibilizazioan, adibidez) sentsibilitateak bestelakoak dira; eta horrela, etorkizuna asmaezina da.

Munduko gauregungo ordenak porrot egin du, munduko herriek eskatutako demokrazia ekonomiko, sozial, politiko eta kulturelei demokrazia ezarekin eta zapalkuntzarekin erantzun dielako. Ondorioz, gaur eguneko pertsonak eta herriek ez dauzkate eskubide berdinak; eta berdinak ez direnez, erresistentziak eta gatazkak ugaritzen dira.

Ordena berria behar dugu. Faxismoa eta inbezilitatea gaingidutako lituzkeen pentsamendu demokratiko eta progresista. Munduko herriek demokrazian, justizia sozialean, askatasunean eta multikulturalismoan oinarritutako irtenbidea behar dute. Neurri ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta ekologikoak hartu behar dira; ez militarrik. Laburbilduz, estatu boteretsuen barbaria-aren aurrean, "zentzu zabaleko demokrazia eta zibilizazioa" ezarri beharko genuke.

**"Boteretsuen barbariearen aurrean, zentzu zabaleko demokrazia eta zibilizazioa ezarri beharko genuke"**

## aste gazte

### ■ DIRU LAGUNTZAK

- Unibertsitatean edo unibertsitate-kanpo ikasketak egiteko izaera orokorreko beka. Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 15.
- Garapenaren lankidetzako profesionalak prestatzeko sei beka, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Zuzenbidean, Ekonomian, Kazetaritza edo Soziologian lizentziadunendako. Epea: urriak 30.
- Jesus Gangoiti Barrena Fundazioaren 40 ikasketa eta ikerketa beka. Goi mailako tituludunendako, hainbat arlo lantzeko: Ingeniaritza, Merkataritza, Hezkuntza, Ekonomia, Medikuntza, Farmazia, Biokimika eta Musika. Epea: azaroak 6.

### ■ LANA

- Bergarako Udalak hiru udaltzain behar ditu. Epea: urriak 18.
- Urola Kostako Udal Elkartearen Ingurumeneko goi mailako teknikaria, Prestakuntza eta Enplegu-ko goi mailako teknikaria eta Administrazio laguntzailea behar dituzte. Epea: urriak 22.
- Segurako Udalera-ko administraria behar da. Epea: urriak 22.

### ■ IKASTAROKA

- Emakumeak eta autoenplegua ikastaroa, emakume langabeendako. Arrasaten egingo da, urriaren 30etik abenduaren 5era arte, 15:00etatik 18:00etara. Epea: urriak 22.
- Enpresa ideia eta autoenplegua ikastaroa. Langabeendako. Bergaran egingo da ikastaroa, azaroaren 12an hasi eta abenduaren 20ra bitarte, 09:00etatik 12:00etara. Epea: urriak 22.
- Troconiz Santacoloma Fundazioak esku hartze logopedikoko modulu praktikoak antolatu ditu. Epea: urriak 19.

**Argibideak:**  
GAZTE ZERBITZUA  
943 77 00 65



**USTEAK USTE**

*Press-taketa berria*

**B**adator, badator... baina zer dator? Zurrumuruak entzun dituzue aspaldian, joan den asteo iragarkiak nolobait argitu zituenak, espero. Horra hor, era berean, **ARRASATE PRESSko Beheko Dendatik atalean astero galdetu dugun Ze pentsetan jatzu ARRASATE PRESS Goienkaria barruen sartzie? ere. Lasai egon, ARRASATE PRESS ez da desagertuko. Hori baino, ohiko aldizkari formatua alde batera utzi eta bailarako aldizkariaren anaia handia bilakatu den Goienkariara moldatuko dugu, gainerako herri aldizkariak bezala. Azaleko itxura aldatuko dugu, baita tamaina ere, eta fase hau edukietan berritasunak egiteko aprobeztatuko dugu. Ikuspuntu erromantikotik begiratura, formatuarenak badu zeresanik, baina aldaketa bailara osoko ikuspegia bultzatzearen halabeharrezko ondorioa da. Bailaran beti izan gara erronka berrietan aitzindari -zer esanik ez, herri komunikabideetan- eta bailarak izen berria duenetik, jauziak gero eta handiagoak izango dira, baita herri komunikabideetan ere.**

Iker Barandiaran.

astea bi hitzetan

■ **Bakartuta**

Huelva-II kartzelan dauden euskal presoak zigortu egin dituzte joan den irailaren 10etik urriaren 4a arte egin-dako itxialdiagatik. Presoen artean, Josu Uribetxeberria arrasatearra dago. Duela bi urtetik hona telefono deiak egiteko dituzten oztopoak izan ziren protestaren oinarria. Eta, telefonoa konpontzea lortu badute ere, orain 20 egunez bakartuta egon beharko dira; kartzelako zuzendaritzak itxialdiak iraun duen aste bakoitzeko bost eguneko bakartze zigorra ipini die.

Horrez gain, Senideak-Gureak elkarteak salatu du kartzela horretako bizi-baldintzak oraindik ere gogorrak direla.

■ **Istripua**

Astelehen goizean, istripua gertatu zen Arrasate eta Aramaio artean, Gipuzkoa-2620 errepidean. Aramaioa zihor-

an Seat Ibiza batek lasterka egiten zebilen 64 urteko CVS arrasatearra harrapatu zuen. Gizonezkoa eskualdeko ospitalera eraman zuten, zauri arinekin, Ertzaintzak adierazita-koaren arabera.

Goizaldean, beste istripu bat izan zen Gipuzkoa-627 errepidean; kamioi bat bide-tik irten zen Arrasate eta Bergara artean. Kamioia errepide erdian geratu zen eta errepidea moztuta egon zen ordu-betez.

■ **Domolab-en aurkezpena**

Eguaztenean, Domolab izeneko egitasmoa aurkeztu zuten Miñaoko Parke Teknologikoan. Hain justu, etorkizunerrako etxebizitzetarako Teknologia Domotikoen eta Energetikoen Esperimentaziorako laborategia da Domolab, eta Ikerlanek eta Enerlan Fundazioak asmatutakoa da. Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Enerlaneko presi-

dente Guillermo Dorronsoro eta Ikerlaneko zuzendari orokor Carlos Redondo.

■ **Trefasan, lanean**

Garaia berrikuntza-guneak egoitza estreinatu du herrian. Hain justu, Trefasa lantoki zaharreko bulegoak berritu dituzte, eta Garaiaiko kudeatzaileak hantxe hasi dira lanean. Argazkiak, maketak eta Garaiaiko iragarki-kartelak ere bulegoan dituzte, eta dagoneko egin dute Garaia berrikuntza-guneko lehenengo maketa.


■ **Gaueko autobusa**

Uste baino emaitza hobekak lortu ditu estreinatu berri den autobusen gaueko zerbitzuak. Ibarrean bi noranzkotan ibili zen autobusa: Eibar-Arrasate eta Zumarraga-Arrasate.

Lehenengoan erabiltzaile gutxiago izan ziren bigarrenen baino. Emakumezkoak izan dira nagusi.

■ **Pintadak Olarten**

Argazkian ikusten duzuen pintada horiekin agertu zen egubakoitz goizean Olarte kaleko eraikin hori. Espainiako bandera eta boikot hitza nagusi, Euskadiko Alderdi Sozialistaren kontrako eta ETaren aldeko pintadak ziren. Arratsalderako ezabatuta zeuden.



**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

*Lore*  
• Lurrindegia • Kabina •  
• Fotodepilazioa •  
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

# Komun publikuek Erdiguneko usain txarren arazue konponduko dau?

*Erdiguneko kalietan askotan usain txarra egoten da, txiza usaiñe.*



**Iban Cabero**  
(Langillie)

Nahiko gatxa ikusten dot, batez be, ordu batzuetatik aurrera.



**Maria Melgar**  
(Etxekoandrie)

Oso ondo pentsetan jat. Gutxienez, ez daue ezkiñetan txixarik egingo.



**Paqui Chaves**  
(Langillie)

Behintzet, dauen arazue konponketan lagundu biherko leuke.



**Andoni Bragado**  
(Ikaslie)

Ezta pentsau be. Nahiz eta eskura euki, kaleko ezkiñak hortxe dagoz...



**Celia Campo**  
(Langillie)

Horrekin ez da nahikue. Gehixago biher die; bestela, jentie tabernetara juen biher da.



**Iker Zugasti**  
(Langillie)

Nik uste dot nahikue dala. Oso komun onak die eta nahiko polittek, gaiñera. Pentsetan dot jentiek ibilliko dittuela.




**Idoia Aranburuzabala**  
(Langabie)

Iguel, gehixago egon ezkerro, hobeto. Horrekin bakarrik ez da nahikue izengo; edo, behintzet, gauetan zabaldu ezkerro, ba zeozer...



**Luis Conejo**  
(Jubilaue)

Gutxienez, beste lauzpabost ipiñi biherko littukie erdialdien. Eta gero, auzuetan...



**Danona**  
KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



**Txitxinpe**


Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

## Aldaiko hilerria husten



Domu Santu ondoren hasiko dira hilobi gehienak husten.

Hasi dira Aldaiko hilerriko hilobiak husten. Hain justu, senitartekoen hezurak eska-

tu dituztenen hilobiak husten ari dira orain (150 bat). Guztira, 700 hilobi hustu behar

dituzte, eta lanak luze joango dira, maiatzera arte, adierazi digutenez. Hori bai, hil honen amaiera aldera etenalditxo egingo dute, orduan helduko da-eta erraustegi berria; hortaz, erraustegi zaharra aldatu arte etengo dituzte lanak.

Nahiz eta lanak hasita egon, Udalak jakinarazi du oraindik ere badagoela astia Aldaiko hilerrian ehortzita dauden senitartekoen hezur-rekin zer egin gura den zehazteko. Udalak lehendik ere egin du deialdi bat hori galdeztzeko, baina 500 herritarrek baino gehiagok ez dute erantzunik eman. Erantzunik eman ezean, hezur horiek udal hezurtegira eramango ditu Udalak.

## Jarduera ekonomikoen zerga

2001eko jardueren ekonomikoen gaineko zerga kobratzen hasiko da herriko Udala. Izan ere, kobratzeko borondatezko epea urriaren 1etik azaroaren 10era artekoa da. Epe hori amaitu eta gero, ordaindu bari-ko ordainagiriak %20ko gainkarguaz kobratuko dira.

Helbideratutako ordainagiriak urriaren 20a aldera pasatuko dira banketxetik. Helbideratu bariakoak, berriz, zergadunak adierazitako zerga-helbidean jasoko dute ordaintzeko beharko duten agiria. Ordainketa edozein bankutan edo Udalean bertan egin beharko da.

## UNEDerako matrikulazio epea zabalik da



Lau titulazio berri eskainiko dira aurten.

Zabaldu dute Bergarako UNEDen 2001-2002 ikasturterako matrikulazio epea. Azaroaren 18ra arte izango da zabalik. Eta matrikulak martitzenetik zapatuta egin ahal dira, 10:30etik 13:00etara goizez eta 17:00etik 20:00etara arratsaldean. Zapatuetan, berriz, goizez egongo da zabalik idazkaritza,

09:00etatik 13:00etara.

### TITULAZIO BERRIAK

Aurten, gainera, lau titulazio berri eskainiko dituzte UNEDen: hiru lizentziatura (Ingeles Filologia, Pedagogia eta Psikopedagogia) eta diplomatura bat (Giza Hezkuntza). Horrez gain, aipatzekoa da

Hizkuntzen Institutua ere izango dela UNEDen. Euskara, galiziera, ingelesa, alemana eta frantsesa ikasteko aukera eskainiko du institutu horrek, titulu ofizialekin, gainera. Era berean, Hizkuntzen Laborategia izenekoa ere zabalduko dute, hizkuntzak ikasteko aretoa, punta-puntako teknologiarekin.

Horrez gain, aipagarria da internet gehiago erabili ahal izango dela ikastaroak eta ikasketak egiteko; hain justu, honako ikasketak egin ahal izango dira internet bidez: Sistemen Informatika, Kudeaketarako Informatika, Ekonomia, Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketa, Psikopedagogia, Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Espainiar Filologia, Ingeles Filologia eta Historia.

## Eskailera berria Erguinen

Gernika zumarditik Erguinen auzoko Kalealderainoko eskailera egiteko asmoa du Udalak. Kontua da gaur egun Larragaineiko etxebizitzetako auzokideek eta inguruko parkeetakoek bide luzea egin behar dutela batetik bestera joateko. Eta, ondorioz, bidexka bat egin dute ur biltegiaren ondok. Inguru horretan dagoen bideak %23ko aldapa dauka.

### ESPALOITIK GORA

Hori guztia kontuan hartuta, Udalak pentsatu du egokiena dela eskailera bat egitea, Udalean auzora bideko espaloitik hasita. Orain, lan hori egiteko behar duten inbertsioa onartzea falta da. Udalak aurrez ikusitakoa baino handiagoa da, eta ez dute ezer erabaki.



## Egitamuaren eztabaida politikoa



Astelehenean, Batasunako, EAJko, EAko eta EBko ordezkariak izan ziren.

Herriko Egitamu Orokorra gainean mahai-inguru politikoa izan zen astelehenean Monterronen. Batasunako, Eusko Alderdi Jeltzaleko, Eusko Alkartasunako eta Ezker Batuko ordezkariak

izan ziren han. PSOEko eta PPko ordezkariak, ordea, ez zuten eztabaidan parte hartu. Hori bai, herritar mordoa joan zen politikarien iritziak entzuztera.

Eusko Alkartasunako eta

Ezker Batuko ordezkariak adierazi zuten Egitamu Orokorra nahiko ondo dagoela jeneralean, eta herritarrek informazio dezente izan dutela herriko etorkizunaren planaren gainean. Alkateak, berriz, adierazi zuen urte urte Egitamu Orokorra berrikusi egin beharko dela, zelan doan ikusteko eta dauden beharretara egokitzeko.

Gauzak horrela, asteleheneko mahai-inguruarekin, bukatu dira Egitamu Orokorren jendaurreko berbaldiak. Irailean hasita, astelehenero egin dute ekimenen bat: besteak beste, joan den astean, zenbait arkitekto eta ingeniari Monterronen izan ziren. Horrekin batera, erakusketa ere egin dute, eta hori ere, gaur, eguena, itxiko dute.

## Odol emateak

Datorren urriaren 22, 23 eta 24an odola ematera joan daitezkeen eskatzen diete herriko odol emaleei. Lehenengo bi egunetan (22 eta 23an) arratsaldeko 16:15etik 20:00ak arte joan beharko dira. Bigarrenean (24an), berriz, 09:15etik eguerdiko 13:00ak artekoa izango da ordutegia. Adi, baina, izan ere, oraingotan Eskola Politeknikora joan beharko da odola ematera, eta ez anbulatoriora.

## Komuna apurtu dute

Gutxi irau du Seber Altubeiko komun publikoak bere onean. Udaletik jakinarazi digutenez, komuna ipini eta aurreneko asteburuan (irailak 29-30) apurtu zuten mutilen aldeko txiza-lekuko sentsorea. Horren ondorioz, komunak ez zuen garbiketarik egiten. Hura konpondu eta pasatu berri den asteburu honetan, berriro ere apurtu dute sentsore bera, baita atea itxi eta zabaltzeko dagoen beste bat ere. Hori ikusita, Udalak gogorarazi



gura du "komuna guztiok erabiltzeko dela, eta zenbat eta garbiago egon, orduan eta hobeto izango dela".

## Danborradako jantziak, eman barik

SUDC elkarteak berriro ere eskatu die aurtengo sanjua-netako danborradetako parte hartzaileei, erabilitako jantziak entregatzeko.

Izan ere, eta nahiz eta lehenago ere gauza bera eskatu, SUDC elkarteak adierazi digu oraindik ere jende dezente falta dela jantziak emateko (nagusien zein umeen danborrada-koak).

Hortaz, berriro ere dei egin dute jantziak entregatzeko. Datorren urriaren 15, 16, 17, 18 eta 19an eraman beharko dira jantziak Pablo Uranga kaleko SUDCen egoitzara. Arratsaldeko 18:30etik 20:00ak arte izango dira egoitzan.

## Nafarroa Oinez

Arizmendi Ikastolak Nafarroa Oinezarako autobusa antolatu du. Izena ematea gura duenak hiru aukera ditu: Ferixalekuko Ikastolara deitzea (943 772021), Eskoriatzako Almen ikastetxera deitzea (943 714907) edo San Viator ikastetxera deitzea (943772045). Izena emateko azkeneko eguna urriaren 16a da.

Nafarroa Oinez bera, berriz, urriaren 20an izango da, Lodosan.

**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**BITTORI  
ERRETEGIA**

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

## Telefono antenen gaineko errekurtsua udalaren aurka



Arrasaten, Udalak luzamendua ezarri du telefono antenen gainean.

Poltsikoko telefonoekin lan egiten duen Retevision Móvil enpresak Arrasateko Udala epaitegietara eramango du telefono antenen gainean hartuta-

ko erabakia dela-eta. Arrasateko Udalak orain dela hilabete batzuk urtebeteko moratoria edo luzamendua ezartzea erabaki zuen telefono antenen

gainean; harik eta jakin arte zein kalte egiten dioten poltsikoko telefonoek osasunari. Horren arabera, aipatutako epean, urtebetean, Arrasaten ezin izango da telefono antenarik ipini. Eta, esan bezala, Retevision Móvil enpresak neurri horren kontra egin du eta errekurtsua jarri du Arrasateko Udalaren kontra.

Horren aurrean, Udalak poltsikoko telefonoen gaineko araudia egitea erabaki du. Eta lehenbailehen prestatzea garrantzitsua dela uste du, errekurtsuari aurre egiteko. Lan horretarako beste udal batzuk telefono antenen gainean duten araudia aztertzen ari da Arrasateko Udala.

## Alde Zaharreko ordutegia

Alde Zaharreko ordutegia aldatzea erabaki du Arrasateko Udalak. Orain, goizeko 08:00etatik 13:00etara zabalzen bada ere, oraingo astetik aurrera, ordubete lehenago zabaltzea erabaki du Udalak. Kontua da zenbait merkatarik eskatu duela lehenago zabaltzea, zamalanak egin ahal izateko. Eta hori egiteak ez dionez inori gaitzik egiten, Udalak onartu egin du eskaera; hortaz, goizeko 07:00etatik 13:00ak arte izango da zabalik alde zaharra.

Gogora ezazue, bestalde, arratsaldetan itxita dagoela alde zaharrerako automobilen sartu-irtena.

## BADATOR GIDA 2002



**Goiena**  
Eremuaren Sektorea

**Kaixo, Mikel Alkorta naiz, eta laster zure taberna, denda edo lantegira joango naiz.**

**GIDA 2002. Aukera ematen dizu Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz Gatzagako merkatarien helbide eta telefono guztiak modu errazean aurkitzeko.**

**Goienaren gidan azaldu edo berri gehiago jaso gura baduzu, deitu 943 71 23 91 telefono zenbakira.**

# Gazte ikastaroak

## euskal dantzak

Lore Gazteak taldearekin  
elkarlanean  
10 urtetik gorakoei zuzendua  
Urriaren 19 - abenduak 14  
Ostiraletan, 19.00-20.30  
Matrikula: 1.000 pezeta

## bio-dantza

"Sormena, mugimendua, adierazpena, ..."  
Fernando Martínez de San Vicenteren eskutik  
Azaroak 10 - abenduak 15  
Larunbatetan, 16:00-19:00 Arrasate Musikalen  
Matrikula: 4.000 pezeta  
Ikasle eta langabeek 2.500




## argazkigintza

Jon Ruiz de Zarateren eskutik  
Azaroak 6 - abenduak 4  
Astearte eta ostegunetan, 18:30-21:00  
Matrikula: 5.000 pezeta  
Ikasle eta langabeek 3.000

Izen emateak: **Gazte Bulegoa**  
Tel.: ( 943 77 00 65 )






## ZORIONAK, BIKOTE!

Argazkian, lagun mordoia agertzen da, eta erdi-erdian, Mikel eta Eli, protagonistak. Izan ere, irailaren 29an ezkondu ziren Udaletxean, eta hementxe dituzue, adiskide guztiekin. Orain, eztei-bidaia egiten dabilta. Koadrilaren partetik, zorionak eta mila esker egun zoragarri harengatik!

## TXILETIK GURERA

Txileko Hezkuntza Ministerioko bi ordezkari izan genituen bisitan Goienan. Maputxe hizkuntza berreskuratzeko asmotan dabilta, eta Goienaren eta euskararen erdua ikertzera etorri ziren.



1.186


Hori izan da zortearen zenbakia Gara-gartzako jaietan. Izan ere, zenbaki hori zera-man txartelaren jabeak irabazi zuen auzoko jaietan zozkatu zen otar ederra. Itsaso Gerrerok eta Elena Azpilikuetak eskuratu zuten saskia, erdi bana. Zorionak!

  
**Larriangan**  
GIDARI ESKOLA

Garibai, 5 Basabe ind. FO-7  
Tel.: 943 792296 Tel.: 943 796450  
ARRASATE ARETXABALETA

- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet

  
Okendo, 1  
Tel./Faxa: 943 77 16 68  
E-Mail: [microsinformatica@jet.es](mailto:microsinformatica@jet.es)


  
**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE




## ZATOZ NIREGANA, "BEHIBI"!

Hona hemen Saran, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan, bizi den lagun berria: Felix "Aldeano" zezena. Crisanto Margusinoren ukui-luetatik ekarri berri dute. Urtebete baino ez du eta 2.500 kilo pisatzen du. Bakar-bakarrrik bizi da eta laguna behar du, eta Bilboko behiak ere bakarrik daudenez, Arrasatera etortzera gonbidatu gura ditu. "Montada" bakoitzak 234.000 erreal balioko du. Interesatuok, jo Sarako Felix-engana.

## GIDALARI BERRIA

Mikel Alkorta arrasatearra 2002ko Gida egiten dabil. Irail bukaeran hasi zen, eta abendura bitartean ibiliko da Arrasateko eta inguruko herrietako telefono interesgarrien aurkitzea prestatzen. Horrez gain, Enpresaritza ikasketak egiten dabil MUNIn.



# ARGÍ-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
 Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
 Tel.: 943 77 11 30  
 ARRASATE



## ZORIONAK!

Jose Felix Díaz de Tuestak, Udaleko Euskara Saileko buru eta ARRASATE PRESSko aspaldiko lagunak, urteak beteko ditu bihar, egubakoitza. 49 izango dira aurten... Ane alabaren partetik, eta geure partetik ere, urtebetetze zorionsua izan dezazula!

## KINTADAK, BAI, ESKERRIK ASKO!

Kinto batzar asko udaberri partean egiten dira, bai. Baina udazkenean ere ez dago horrelakorik faltan: orain dela gutxi, 1914an jaiotakoek izan zuten; urriaren 27an, 1949an jaiotakoek izango dute urteko batzarra eta ospakizuna. Meza, txikiteoa eta Musakolan bazkaria izango dituzte. Izena emateko, Lore edo Zabaleta lurrindegietara edo Biteriko kioskora jo beharko duzue. Baietz urte bukaera bitartean kinto batzar gehiago antolatu!



**Zorion itzazu zure lagun  
eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki  
batekin eta utzi gure esku!

Otalora lizentziaduna, 31.



**gelatzu s.l.**

Zubillaga auzoa, 1 • OÑATI • 943 71 63 22

**Azulejuak baino gehiago**



Bainu altzariak eta osagarriak

Hidromasaje bainerak eta kabinak



GRUPO

**RK UZ**

1950-2001

**51 urte**



Araba Etorbidea 5  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Mitarte 3  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Asunción, 1  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

# ARRASATE

ARRASATE / ARAMAIO

Arrasaten  
eta Aramaton.

Txirritola

ARRASATE

Goienkaria

Debagoieneko  
berri denak

GOIENKARIA  
EDIZIOEKIN:  
DEBAGOIENEAN



erronak garaiak diren arren, prentsa modernoaren hastapenak XVII. mendean koka daitezke, *Nieuwe Tijdingen* egunkari belgikarra erregulartasunez argitaratzen hasi zenean.

Debagoiena aitzindari izan da Euskal Herrian herri prentsaren garapenean. 1988an, *Arrasate Press* sortu zen eta, harrezkero, beste bost aldizkari ere badaude eskualdean.

1999an, eskualdeko komunikabideen bateratzea hasi zen eta 2000n, *Goienkaria* jaio zen, eskualdeko aldizkaria.

Orain, urriaren 19an, egungo aldizkariak ediziotan batuko dira. Herri bakoitzak oraingo atal komuna eta bere edizioa jasoko ditu.

Bergaran, Antzuolan  
eta Eiztan.



Aretxabaletan, Eskoriatzan  
eta Leintz Gatzagan.



# EZ DA BERDIN IZANGO

**URRIAREN 19TIK AURRERA, ARRASATE PRESS NEURRI HONETAN, ASTERO**

# EMAKUMEON TXOKOA

## DOAKO IKASTAROA

### AUTODEFENTSA IKASTAROA

18tik 40 urte bitarteko emakumeei zuzendutako ikastaroa. Arlo fisiko zein psikikoa lantzen da ikastaro-tailer honen bidez, neskak eta emakumeak beren burua defendatzeko baliabideez eta jarreraz kontura daitezzen. Ikastaroa ostiraletan, arratsaldez, eta zapatuetan, goiz eta arratsaldez, izango da, San Viator ikastolako gimnasioan, egunak zehazteke.

Inskribatzeko, Emakume Sailarekin harremanetan jarri, 943790900 telefonoan edo [emakume@arrasate-mon-dragon.net](mailto:emakume@arrasate-mon-dragon.net)

### LITERATURA ETA EMAKUMEAK SOLASALDIAK

Bi talde egongo dira; euskarazkoa (Itziar Zubizarretaren eskutik) eta gazteleraazkoa (Ana Arregiren eskutik). Emakumezko nahiz gizonezkoek parte har dezakete. Euskarazko taldeak aurkezpen bilera urriaren 29an, astelehenean, Monterron kultura etxean, 18.30ean. Lehen saioa azaroaren 5ean. 18:30etik 20:30era arte, Margarite Duras-en *Maitalea* liburuarekin. Bigarren saioa abenduaren 3an, ordu berean, Ramon Sainzarbitoriaren *Bihotz bi* liburua.

Gazteleraazko aurkezpen bilera azaroaren 8an, ostegunean, Monterron kultura etxean, 18:30ean.

**Saloen egutegia:** lehen saioa azaroaren 20an, Josefina Aldekoaren *Historia de una maestra* liburuarekin; eta abenduaren 18an, Miguel Delibesen *Cartas de amor de un sexagenario voluptuoso*, 18:30etik 20:30ak arte.

### AUTOESTIMA IKASTAROA

Ikastaro honen bitartez, emakumeon eguneroko bizimoduaren inguruko gogoeta egin nahi da, gure gorputzaren ezagutza, geure buruarekiko dauzkagun sentimenduak aztertzea, ... Ikastaroa Pepa Bojo psikologo, psikoterapeuta eta terapeuta sexualaren eskutik.

**Ikastaroa urriaren 23an hasiko da. Ordutegiaren berri jakiteko, deltu Emakume Sallera.**



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■



...miraria!, oihukatu zuen Sebas Lasak. 25 urte geroago, Maritxuk berriro ere ura ardo bihurtu zuen.




Hortik aurrera (eta askorendako hori baino lehenago) jendeak parrandarako berotu zuen gorputza



Hori bai, dotorezia ahaztu barik.



Hementxe On José María Mercader, edo Txantxote, Arrasaten ezagutzen zuten moduan. Hura 1975ean hil zen, baina a ze ekarpena egin zigun: Maritxu Kajoiaren lehen urratsa!



...eta Txantxoteren ohiturari jarraituz, giro ezin hobea izan dugu aurtengo Maritxu jaietan: epela, dotorea eta, nola ez, zoroa!





**ARRASATEKO EDIZIOA**

Arrasate Press / Txirritola  
Arrasate / Aramaio

24 orrialde (+ Goienkaria, 24 = 48)

**BERGARAKO EDIZIOA**

Berrigara / Kontuola / Goibekokale  
Bergara / Antzuola / Elgeta

24 orrialde (+ Goienkaria, 24 = 48)

**ARETXABALETAKO EDIZIOA**

Aretxagazeta / Ze barri?  
Aretxabaleta / Eskoriatza eta Leintz Gatzaga

12 orrialde (+ Goienkaria, 24 = 36)

**A**ldaketa nabarmena izango du, hortaz, **ARRASATE PRESSE**k. Formatuari dagokionez, orain arte Din-A4an inprimatzen zen; hemendik aurrera, berriz, Din-A3 formatuan jasoko duzue, Goienkariaren formatu berean. Debagoieneko albisteak batzen dituen eta ibar osoan banatzen den Goienkariaren barruan, Arrasateko eta Aramaioko astekariak jasoko dituzue. Bi astekari horiek batzen dituen edizioak 24 orrialde izango ditu. Herrietako aldizkarietaz gain, Goienkaria ere aldatuta etorriko zaigu; izan ere, orain 24 orrialde ditu, eta laster 48 orrialdeko astekaria jasoko dugu.

**ARRASATEKO EDIZIOA**

Esan bezala, 24 orrialde izango ditu Arrasateko edizioak; horietatik, Txirritolak bi orrialde izango ditu, eta gainerakoak, **ARRASATE PRESSE**k. Arrasateko edizioan batuko diren bi astekarietaz Otalora kalean izango dute egoitza. Ubane Madera izango da Txirritolako arduraduna, eta Iker Barandiaran **ARRASATE PRESSE**koa; edizioaren arduraduna ere Iker Barandiaran bera izango da. Kazetarien lantaldea Xabier Urtzelaik osatuko du.

Arrasateko edizioaz gain, herrietako beste bi edizio izango ditu Goienkariak: Bergarako eta Aretxabaletako, hain zuzen ere. Lehenengoan, Bergarako,

Elgetako eta Antzuolako berriak jasoko dira, eta 24 orrialde izango ditu. Bigarrenean, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagakoak jasoko dira, eta 12 orrialde izango ditu.

Goienkariaren hiru ordezkariak, Arrasatekoa, Bergarako eta Aretxabaletako, sarean izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

**'ARRASATE PRESS' BERRITUA**

Eskuetan daukazuen hau **ARRASATE PRESSE**n 558. zenbakia da (datorren asteakoa, berritua, 559.a izango da). Zeresan nahi du horrek? Hain justu, 558. astean helarazi dizuegula Arrasateko aldizkaria zuen postontzietara. Edo, beste era batera esanda, urteak eta urteak daramatzagula zeregin horretan; zehatz esateko, ia 13 urte. 1988ko abenduaren 2an jaio zen **ARRASATE PRESS**. Hasierako zenbakia ikusi

baino ez duzue urte hauetan **ARRASATE PRESSE**k izan duen bilakaera antzemateko. Urteak ez dira alferrik joan, eta hainbat faktorek ahalbideratu digute astetik atera produktu hobea egitea: gure

bezereok (dendari, tabernari, enpresa...), informatikaren eta, oro har, teknologiaren aurrerapenak, urteek ematen duten ezagutzak, eta abar. Orain, beste alda-


keta bat etorriko da; agian, **ARRASATE PRESSE**k bizi izan duen eraldaketarik handiena izango da, bereziki, formatua aldatuko dugulako. Zergatik aldaketa hori?

Batez ere, prezioagatik: aurrerantzean, egunkari formatuan inprimatuko da, eta paperean, hau da, Goienkaria bezala. Horrela egiteak asko merkatzen ditu inprimatze kostuak. Horretan aurrezten duguna edukietan inbertituko dugu. Bestalde, aurrerantzean, Goienkaria eta **ARRASATE PRESS** toki berean inprimatuko dira, formatu eta paper mota

berekoak izango dira, eta batera helduko zaizkigu. Horrek esan nahi du herriko albisteak eta ibar osokoak batera etorriko zaizkigula, baina ondo bereiztuta. Hau da, hobeto integratuko dira bi edi-

**DATORREN  
ASTETIK AURRERA,  
ARRASATE PRESS  
ETA GOIENKARIA,  
BIAK BATERA.**

**EGUNKARI BATEN  
NEURRI ETA  
ITXURA IZANGO DU,  
DISEINU  
BERRIA, EDUKIZ  
JANTZIAGOA...**



**J.M. VELEZ DE MENDIZABAL  
IDAZLEA**

Orain arteko *Goienkaria* herri aldizkariaren ondoan jauzi kualitatiboa dela deritzot. Herri aldizkariak baino planteamendu zabalagoa, ausartagoa eta modernoagoa da, eta, formatu aldetik, erabilgarriagoa. Lekuko prentsari aspaldian ikusten ez nion fres-

kotasuna ikusi diot *Goienkariari*. Bestalde, herri aldizkariak eskaintzen zuten gertutasuna, orain arte, ez du *Goienkariak* eskaini; hori dela eta, edizioak sartzeari ulergarria deritzot. Oro har, *Goienkariarekin* guztiok irabazten irten dugula uste dut.

zioak: lokala eta denondako komuna.

**PRODUKTU HOBEA**

Erronka da diseinuaren eta edukien aldetik gaur egungoa baino produktu hobea egitea. Horregatik, ahalegin berezia egingo dugu sail berriak zuenganatzen, albiste iturri berriak topatzen..., berba batean esanda, zerbitzu hobea eskaintzen. Bestalde, gogoan izan behar da Aramaioko berriak ere jasoko dituzuela **ARRASATE PRESSEN**. Hemendik aurrera, Txirriitola ere, astero. Interesa duenak irakurriko ditu eta ez duenak, orria pasatu eta kito! Nola edo hala, zerbitzu hobea eta informazio osatuagoa jasoko duzue **ARRASATE PRESSEN**.

**ERREDAKZIO SISTEMA**

**ARRASATE PRESS** formatuz, itxuraz eta edukiz aldatzera goa-

zela eta, berau idatzi eta egiteko modua ere aldatu egingo dugu. Informatika-programa bereziak erabiliko ditugu eta erredakzio sistema berria estreinatuko dugu. Egiteko modu berri honek pro-



**ARANTZAZU LOIDI  
ARRASATE PRESSEKO ZUZENDARI OHIA**

Orokorrean oso ondo iruditzen zait *Goienkaria*. Bailaran dagoen huts inportante bat beteko du eta jendea bailarekin identifikatzen lagunduko duela uste dut. Horrekin batera, inguruko herrien berri jakiteko kezka ere bultzatzen dut.

Hori bai, pena txiki bat ere badaukat: Arrasate Pressen zuzenean parte hartu dudanez, aldizkari itxura hori galtzeak pena emango dit. Edozelan ere, gauzak ondo badoaz, seguru hobera egingo duela Arrasate Pressekin.



**ANDER CORCUERA  
LASTERKETETAKO AUTO-GIDARIA**

Egia esan behar badut, Arrasate Press zegoenetan asko gustatzen zitzaidan, azken batean urte askotan esku artean izan dugun gauza bat delako. Argi dago hasieran pena apur bat izango dugula, eta oraindik Arrasate Press berria ikusi ez dudanez...

Hala ere, seguru nago edizio berriein kontrako baino aldeko gauza askoz gehiago izango dituela Arrasate Pressak, eta argi daukat aurrerapauso bat izango dela. Azken baten, informazio gehiago izango dugu, orri eta atal berriein, eta argazkiek ere indar gehiago izango dute.

duktuaren kalitatea hobetuko du eta, horrez gain, Goienako aldizkari guztiak sarean, hau da, interneten jartzea ahalbideratuko du.

**HERRI PRENTSAN  
EREDU**

Herri aldizkari gehien dituen eskualdea da Debagoiena, zazpi, hain justu, eta denak euskaraz idatziak: Berrigara, **ARRASATE PRESS**, Aretxagazeta, Kontuola (Antzuola), Kontzejupetik (Oñati), Ze barri? (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) eta Goibekokale (Elgeta). Herrieta-koez gain, ibar osoan banatzen den astekaria ere bada: *Goienkaria*, euskaraz idatzitako komunikabide batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena duena (20.000 ale). Oñatiko Kontzejupetik izan ezik, gainerako guztiak Goienak kudeatzen ditu.

Baina herri guztietan ez dute maiztasun berekin jasotzen herrietako berriak. *Goienkaria* da astero herri guztietan banatzen den aldizkari bakarra. Arrasaten eta Bergaran ere astero jasotzen dituzte euren herriet-

tako berriak. Beste herrietan, hamabostean behin edo hilero. Hortaz, Goienak oraingoz duen helburua da aldizkari guztiak astero martxan jartzea, prentsari dagokionez. Urriaren 19tik aurrera izango da hori.

# Udalatx Eguna ospatuko da bihar



Aurten ere, mendian hil direnak gogoan izango dituzte Udalatx Egunean.

Bihar, egubakoitza, Pilarreko Amaren Egunean, Udalatx Eguna ospatuko da, eta Udalatx Zaleak taldeak ohikoekin-

tzak antolatu ditu. Urtero moduan, goizeko 09:00etan izango da irteera, Udalatik gailurrera. 11:00etan, berriz, guru-

tze handiaren aurrean lore eskaintza egingo dute hildako mendizaleen omenez, mendirik mendi eta gailurrez gailur ibiltzen ziren haien omenez. Eta, ohiturari jarraituz, aurten mendian hil direnak oroitu dituzte: Anatolio Saiz, Jesus Maria Beltrán de Guevara eta Jabier Bergaretxe; hirurak Udalatx Zaleak. Gero, 12:30ean, meza izango da Esteban Deunaren elizan, eta bukatzeko, mezaren ostean, Aita On Lekuonaren abestia kantatuko dute. Aitzakia polita beste behin ere Udalatxera igotzeko.

# Mondraren hasiera, uste baino txarragoa

Denboraldia hasi zenean, Mondra taldeak helburu oso garbiak zituen; igoera postuengatik borroka egitea. Etxeko taldeak dagoeneko hiru partidu jokatu ditu, eta oraindik puntu bat bera ere ez dute eskuratu. Egia esan, denboraldi hasiera ez da izan uste bezalakoa. Pasa den asteburuan Arrasatek Segura taldearen bisita izan zuen, eta lehenengo zatian etxeko taldea 1 eta 0 aurreratu zen Muxiren gol bati esker. Bigarren gauzak hobera egin beharrean txarrera egin zuten eta kanpotarrek partidua berdintzea lortu zuten. Banakoarekin iritsi ziren partiduen azken txanparaino, eta puntu bana-keta izango zela uste zenean, etxeko taldeko atezainaren huts bati esker, Segurak 1 eta 2koa egin zuen. Hala ere, argi dago kasu honetan Juliok ez daukala erantzukizun guztia, ezta gutxiago ere, eta taldeak orain arte erakutsitakoa baino gehiago egin beharko duela.

Oraingo asteburuan etxeko taldeak Pedruskoren aurka jokatu du. Mondra hamabostgarren postuan dago, eta Pedrusko azkena da hamaseigarren postuan. Beraz, azken bi postuetan daude biak, eta oraingoan punturik lortzen ez bada, Mondra azkena izango da sailkapenean.

# Arrasateko pilotarien aurkezpena



Arrasateko pelotariek argazki ofiziala egin zuten martitzenean.

Martitzen arratsaldean, Arrasateko pilotariak Uarkapen elkartuz ziren argazki ofiziala egiteko. Horrela, partiduak iragartzeko kartelak egingo dituzte, eta babesleren bat aurkitzen ere saiatuko dira, izan ere, etxeko pilotariak izerdi asko bai, baina laguntza gutxi iza-

ten dute. **DENETARIKO EMAITZAK** Arrasateko pilotariak Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko ari dira, eta, emaitzei dagokienez, denetarik dago. Seniorretan, Zugastik eta Lazkanok 18 eta 22 galdu zuten Azkoitiaren

aurka. Zuazua eta Arroyabe ere ez ziren fin ibili Añorgaren aurka, 1 eta 22 galdu zuten-eta. Errastik eta Zuazubiskarrek, ordea, 22 eta 7 irabazi zioten Hernaniri, eta, azkenik, Agirrek eta Uribarrenek 22 eta 5 galdu zuten Azpeitiaren kontra.

Gaur, eguna, Agirrek eta Uribarrenek Tolosaren aurka jokatu dute Uarkapen, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Gero, Zugastik eta Lazkanok Amezketauren aurka neurtuko dituzte indarrak. Zapatuan, Zuazuak eta Arroyabek Hernaniren aurka jokatu dute, eta Errastik eta Zuazubiskarrek Elgetako pilotariak izango dituzte aurrez aurre.

**PUB HAIZEA**

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**ML**

**ILE APAINDEGIA**

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

# Ander Corcuera 21.a izan zen Jaramako zirkuituan jokatuako Renault Clio Copan



Hogeita bat urteko pilotua bikain aritu zen ezagutzen ez zuten zirkuituan.

Pilotu arrasatear gaztea Jaraman izan da asteburuan jokatu den Clio Kopako Txapelketan, eta domekan izandako lasterketan hogeita batgarren izan zen. Ander Corcuera beste 40 piloturekin lehiatu zen zein baino zein, eta emaitza oso ona da.

Ander Corcuera, hasierabaten Renault Formulan par-

te hartu behar bazuen ere, azkenean uste baino dirulaguntza txikiagoa izan du. Pasa den astean Clio Kopa jokatzeke aukera suertatu zitzaionean, bi aldiz pentsatu barik autoa alokatu, Bartzelonaraino joan probak egitera eta domekan Jaramako zirkuituan izan genuen. Pilotu arrasatearren autoa, txapelketako

besteena bezala, Renault Clio Sport-a da. Bi mila zentimetro kubikoko motorra eta 180 zaldi potentziako indarra dauzka, eta puntako abiada baino, martxa motzetan izaten dute indar handiena.

## GIRO BIKAINA JARAMAN


Domekan Madrilgo Jarama zirkuitura hurbildu ziren milaka lagunek autoekin eta kamioiekin gozatzeko aukera izan zuten. Renault Formulako eta Kamioien lasterketak ikusgarriak izan baziren ere, guk Clio Kopako lasterketa jarraitu genuen buru-belarri.

Lasterketa egunean eguraldi bikaina egin zuen, baina egubakoitz eta zapatuan, entrenamendu egunetan, euria barra-barra egin zuen, eta pilotuek arazo asko izan zituzten autoak probatu eta denbora onak egiteko.

Arrasatearrak berandu eman du izena Clio Kopan, eta geratzen diren lasterketekin zaila izango da, aurtan, behintzat, goiko postuetan izatea. Hala ere, argi dago datorren urteari begira lasterketa hauek asko lagunduko diotela zirkuitu batzuetan aritzeko eta autoari neurria hartzeko.

Ander Corcuera azaroren 4an izango du hurrengo lasterketa, Portugaleko Estoril zirkuituan, hain justu ere. Pilotu gaztearen ustez, aurkariak alde txikiagoa izango dute han; izan ere, Estorilgo zirkuitua gutxi ezagutuko dute, eta pasa den asteburuan gutxi izango ziren Jaramako zirkuitua ezagutzen ez zutenak. Helburua izango da lehenengo hamarretatik hurbil geratzea, edo, zergatik ez, lehenengo hamarren artean.

## Zaldibarko areto futbol txapelketa, abian



Astearte eta asteazkenean, Zaldibarko antolakuntzakoak Monterroneko Jauregian izan ziren txapelketa berrirako ize-

nemateak hartzen. Hala ere, talderen bat kanpoan gelditu bada, antolakuntzak asteleheneraino luzatu du izenemateko epea.

Hasierabaten txapelketa urriaren 20an hasi behar bazen ere, baliteke epe hori astebete luzatzea. Aurtengo taldeek 28 mila pezeta ordaindu beharko dituzte txapelketan parte hartzeko, eta horietatik zortzi mila fiantzarako izango dira. Taldeek gutxienez hamabi jokalarik izan beharko dituzte, eta jokalariek gutxienez hamasei urte izan beharko dituzte. Talde bakoitzak kolore berdineko kamisetekin jokatu beharko dute, eta lehenengo aldiko partiduak taldeek epaituko dituzte. Argi

dago, jokalarik batek talde bakoirean jokatu ahal izango duela, eta horrela ez bada, antolakuntzak neurriak hartuko ditu. Urtero bezala, epaitzen ez duen taldea zigortua izango da. Hasieran fiantza kenduko zaio taldeari, eta hurrengoan taldea kanporatua izango da. Horrez gain, behin baino gehiagotan, epaiketa oso kaskarrak egin izan dira, gehienetan interes faltagatik. Horregatik, oso gaizki epaitzen duten epaileek, zigorra jaso dezakete, eta baita beraien taldeek ere.



## Senior mailako bi taldeak bikain ibili ziren, nahiz eta batek galdu



Arrasate taldeak galdu egin bazuen ere, entrenatzailea pozik agertu da.

Arrasate Eskubaloik talde bi ditu aurten senior mailan, eta talde nagusiak maila bikaina erakutsi zuen Urnietaren aurka. Bernardo Balerdiren mutilek, nahiz eta kanpoan jokatu, hasiera-hasieratik nagusitasuna erakutsi zuten, eta lehen zatian erraz aurreratu ziren markagailuan. Atsedena dira sei goleko aldearekin joan ziren, 10 eta 16, hain justu. Bigarren zatian, aldiz, Arrasate Almen taldeko jokalariek

lasaitu egin ziren, eta Urnietako jokalariek estutzen hasi ziren. Horren ondorioz, kanpoko taldeak aldea murriztu zuen, eta gol bateko aldea baino ez zuten izan Bernardoren mutilek. Azken orduko erreakzioari esker, Arrasatekoek aldea handitu zuten, eta, azkenean, 24 eta 28 irabazi zuten. Arrasate Almenek domekan jokatu du Arrate taldearen aurka. Eguerdiko hamabietan izango da parti-

dua.

Jesus Mari Herrerok gidatzen duen taldeak, Arrasatek, Aierru talde sendoaren aurka neurtu zituen indarrak, eta etxeko taldeak galdu egin bazuen ere, entrenatzailea pozik agertu zen mutilek egingako lanarekin. Arrasateko taldea gazte mailatik igo berri da, eta Aierru pasa den urteko txapelduna da, hortaz, hasiera batetik argi zegoen norgehiagoka gaitza izango zela. Lehenengo zatian, etxekoak aurkariari eusten saiatu ziren, eta atsedena dira 6 eta 10 iritsi ziren. Bigarren zatian, gauzak okertu egin ziren, eta hamar minutuan, kanpotarrek alde handia lortu zuten. Azkenean, Arrasatek 15 eta 28 galdu zuen, baina Arrasateko mutilek zeukaten guztia eman zuten.

Jesus Mari Herreroren mutilek bihar jokatu dute hurrengo partidua. Iturripen izango da, eguerdiko hamabietan, Urolaren aurka.

## Kenci Arrasatek ezin punturik eskuratu

Kenci Arrasatek ezin izan zuen punturik ekarri Eurotaller talde bizkaitarraren kanpatatik. Hasiera batetik, argi geratu zen irabaztea oso zaila izango zela, izan ere, etxeko taldea zazpi jokalarirekin joan zen partidua jokatzeraz. Zazpi jokalar horietatik, Sergiok eta Andonik junior mailan jokatzen dute. Horren jokalar gutxi izanda, oso zaila zen partidua aurrera ateratzea. Norghegiagokako hasierako minutuetan, arrasatearrak emaitzari eusten ahalegindu ziren, baina bigarren laurdenetik aurrera, helburu hori ezinezko bilakatu zen, eta azkenean, bilbotarrak 95 eta 64 gailendu ziren.

Iker Zubiriak zuzentzen duen talde arrasatearrak denboraldi hasiera kaskarra izan du. Jokoari dagokionez, etxeko taldea ez da gaizki aritu, baina hainbat jokalar min hartuta daude. Kencik zapatuan jokatu du Loiola Indautxu taldearen aurka, Iturripen, arratsaldeko seietan.

# 500.000 pezeta gastatzeko gai zara?

Zatoz, erosi eta irabazi  
itzazu 500.000 pezetak

ibai-arte

## 2003an, Kilometroak berriro gurean?

“Gure ilusioa da hemendik bi urtera Kilometroak berriro Arrasaten antolatzea, Arizmendi Ikastola gisa”; horra hor Arizmendi fundazioaren arduradun Felix Ormaetxearen hitzak.

Datorren urtean, Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen jaialdia, Urretxun izango da; baina, Arizmendik esan duenez, dagoeneko egina dauka eskabidea 2003ko ospakizuna antolatzeko.

Horiek dira domekan San Frantzisko Xabier ikastola mondragoetarrak jaso zuen omenaldiaren ondorioak. Kilometroak antolatu duten ikastola guztiei egin zieten omenaldia. Eta 25 urte hauetan Kilometroak jaia prestatu izan duten gainerako ikastolen moduan, San Frantzisko Xabierrek ere oroigarria jaso



Parte hartze handia izan zen Arrasaten 1981ean egindako jaialdian.

zuen. Tartean, Debagoieneko beste bi ikastola zeuden: Bergarako Aranzadi eta Oñatiko Txantxiku. Arizmendik honakoa dio ekitaldiaren gainean: “Ondorioak, batez ere, gero-bera begira dira: 2003rako anto-

lakuntza, hain zuzen ere”.

1981ean egin zen Kilometroak jaia Arrasaten; egin diren guztietatik bosgarrena. Eguraldi ederra lagun, Euskal Herri osoko milaka lagun etorri ziren.

## Ludoteketako matrikulazio epea, zabalik

Dagoeneko ireki dute izenemate epea Erdialdeko eta Santa Marinako ludoteketan parte hartzeko, Txatxilipurdi elkartearen eskutik. Oraingoz, ez dago mugaegunik. Izenematearen egoitzetan bertan egingo da. Haur eta Lehen hezkuntzako umeei -3 eta 12 urte bitartekoei- dago zuzendua deialdia. Ludotekak astegunetan izango dira zabalik, arratsaldez. Jostailuak, eskulan tailertxoak eta beste hainbat baliabide eskainiko dituzte.

## Euskal emakumeak historian

Oroimen historikoa berreskuratzea; euskal matriarkatuaren jatorria miatzea; Euskal Herriaren historiari emakumearen ikuspuntutik begiratzea; oro har, euskal emakumeak historian bete duen rola aldarrikatzea. Horra hor Emakume Kontseiluak antolatu duen *Euskal Herriko Emakumeen Historia* tailerraren helburu sorta.

Ikastaroa abenduaren 17ra arte izango da, astelehenero, Monterrongo areto nagusian, 17:00etatik 19:00etara. Marta Brancas adituak emango du. Euskal historia errepasatzeaz gain, irteerak, testu irakurketak, diapositibak... egingo dituzte.

## Euskal dantza, argazkigintza eta biodantza

Gaspe Sailak argazkigintza, biodantza eta euskal dantza ikastaroak eskainiko ditu. Euskal dantzena urriaren 19an hasiko da; argazkigintzarena eta biodantzarena, azaroan. Hirurotarako izenemate epea zabalik dago dagoeneko.

Lore Gazteak taldeak emango ditu euskal dantza eskolak. Egubakoitzero izango dira, eta Santamas inguruan bukatuko dira. 10 urtetik gorako edozeinek parte har dezake.



Euskal dantza, abendura arte.

### AZAROKO IKASTAROAK

Argazkigintza ikastaroa martitzen eta eguenetan emango da, 18:30etik 21:00etara. Hastapen maila landuko da. ASA argazkilari taldeko Jon Ruiz de Zarate izango da irakaslea.

Biodantza jardunaldiko irakaslea iazko berbera izango da, Fernando Martínez de San Vicente. Eskolak zapa-tuetan izango dira, 16:00etatik 19:00etara. Dizi-plina horren bidez, gorputza eta adimena lantzen dira.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdea F-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792944

ARETXABALETAKO

**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

TERESA DÍAZ (MARGOLARIA)

## « Margotzen dudanean, gustatzen zait emaitza zerbait ederra izatea »

Harresi aretoak beste erakusketa bati ematen dio ostatu hil honen 11tik 28ra bitartean. Teresa Díaz dugu egilea. Galiziarra sortzez, Oñatin bizi da, eta Mondragon Unibertsitatean dihardu irakasle. Atsegin handiz hartu gaitu Teresa. Haren margolanak ikusita, motiboen barietatea eta formatuen ugartasuna iruditzen zaizkigu deigarrienak lehenengo begiradan.

### –Zer da zuretako margolaritza?


–Zaletasuna baino ez, baina oso zale-tasun garrantzitsua. Aukera ematen dit egunerokotasunetik ihes egiteko eta lagun giro berri batekin gozatzeko. Baina margotzea, batez ere, jarduera ludikoa da niretako, benetan gustatzen zaidan zerbait.

### –Aurkeztu zuk zeuk erakusketa...

–Egiten dudan lehenengoa da. Motibo asko landu ditut: erretratuak, paisaiak, biluziak, katuak, natura hilak... Nahiko tamaina handikoak dira lan asko. Kanpoko itxura zaintzen saiatu naiz, marko aldetik, eta abar. Nahiko gustura geratu naiz emaitzekin.

### –Eta edukiei dagokienez, zein da, zure ustez, zure lanen bertuterik handiena?

–Akaso, kritikoez eta jakintsuek aurkituko dizkiete akatsak, bai; baina nik espero dut jendeak gustuko izango dituela. Margotzen dudanean, gustatzen zait emaitza zerbait ederra izatea, irizpide edo iritzi horrek gidatzen du nire lana. Horretarako, lehen urratsa da teknika ondo jakitea: marrazkia, koloreen konbinazioa eta bizitasuna, argiaren tratamendua, sakontasun itxura, objektuen “bolumen” inpresioa... eta edertasun hori lortzeko, gauza horiek lantzen eta hobetzen saiatzen



naiz nire margolanetan.

### –Zein teknika duzu gogokoen?

–Guztiak, baina orain, pastela erabiltzen nabil, eta guztiz ondo moldatzea gura nuke.. Marina Gómez gasteiztarraren ikasle naiz, haren gomendioz heldu diot teknika horri, eta hark erakutsi dit pastelak dituen zailtasunak gainditzeko bidea. Pastela, olioak bezain erabilia ez izan arren, aspaldiko teknika da. Berezitasunak ere baditu: margoa hatzez zabaldu behar da eta, horrez gain, ez du samur zuzenketarik onartzen, olioak bezala. Hala ere, pastela oso atsegin dut, hainbat abantaila dituelako: dotoretasun berezia dauka, eta oso egokia da gizon-emakumeon larruzala ñabardura guztiekin margotzeko, edo giza gorputzari edo edozein objektuari bolumen inpresioa emateko.

–Margolari askok gurago izaten dute motibo gutxi batzuen gainean lan egitea. Zuk, ordea, asko lantzen dituzu.

–Hala da, bai, eta hori margolari eza-gun askorekin gertatzen da. Dena dela, niri egokiago iruditzen zait aurkezten zatzaizkidan motibo gehienak jorratzea, margolari izaten ikasten nabilen bitartean, behintzat.

### –Zein da guztietatik zailena?

–Bat esatekotan, erretratu esango nuke; izan ere, marrazkia eta proportzioa oker barik menderatu beharra dago, baldin eta erretratu ona egin gura bada.

### –Zer miresten duzu gehien zure maisuengandik?

–Nire iritzi, teknika ondo jakiteaz gain, margolari handiek badute dohain berezi bat ezkutuan dauden gauzak modu xamur eta berezian azaleratzeko: pertsonen sentimenduak edo izaera erretratu baten, adibidez; edo bizimoduaren zailtasunak hiri handietan edo giro desberdinetan. Eta hori ez da inon ikasten.

« Akaso, kritikoez eta jakintsuek aurkituko dizkiete akatsak nire margolanei, baina nik espero dut jendeak gustuko izango dituela »



## Karmelo Zubillaga Basati tabernakue

Mondragoetar askok ezaguketan dogu Karmelo Zubillaga, "Tame", azken baten, barra atzien egoterakuen lagun asko egitten die-eta. "Tame" k lagun asko eukiko dittu, hamazazpi urte daroie-eta barrako beste aldien, eta biharragaittik hasi bazan be, gustora egitten dau lan. Hasi Irati tabernan hasi zan, eta Lagunillan ibilli eta gero, berak eta beste hiru lagunek Basati tabernie zabaldu euen. Urte eta erdi pasau da dagoeneko, eta gauzak ez doiez bat be txarto.

### -Amets bat.

Euskal Herrixe libre izetie.

### -Amets txar bat.

Ez dakit.

### -Egin dozun azken biajie?

Kubara.

### -Txartel horixe, zeñei?

Zeuri. Je, je, je.

### -Eta gorrix?

Aznarrei eta Bushei.

### -Film bat? Liburu bat? Musika talde bat?

*Quadrophenia/ Los pilares de la tierra/ Deep Purple.*

### -Drogak legalizauko zittukie?

Derrigorrez.

### -Eta prostituziñue?

Hori be bai.

### -Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Zeuk badakizu erantzune, je, je, je. Tabernetako txikiteue.

### -Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Herrixen dagoen euskal girue.

### -Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Neure ustez, dagoena oso ondo dago.

### -Bizio bat?

Erretie.

### -Ze pentsetan jatzu ARRASATE PRESS Goienkaria barruen sartzie?

Ondo.

### -Ze gehitu leikixo ARRASATE PRESSEi? Eta ze kendu leikixo?

Auzuen gaiñien erreportaje gehixago egingo nittuke. Ez neuke ezer be kenduko.

### -Mendi bat?

Udalatx, ez?

### -Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Kubara juengo nitzake.

### -Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Bereziki, iñor be ez.

### -Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Aurreko erantzunaren antzera, iñor be ez..

### -Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñiekin?

Sharon Stonekin. Je, je, je.

### -Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Kirolak eta...kirolak. Ez dot irratirik entzuten.

### -Zertan gastauko zeuke dirue?



“Lehendakarixe izengo banitz, ahalegindduko nitzake Euskal Herrixe nazio moduen eraikitzen”

Juerga on baten eta biajetan.

### -Lanien ze da gehixen gustetan jatzuna?

Jentiekin tratuen egittie.

### -Eta gutxien gustetan jatzuna?

Juergan ibiltten dien mozkortxuei aguantau biherra.

### -Azkenaldixen entzun dozun talderik onena?

Fermin Muguruzak egitten dauen musikia gustetan jat.

### -Tabernie martxa onien doie?

Bai.

### -Zergaittik Basati?

Bueno, izena B.A.S.A.T.I da: Bittor, Aitor, SAgasta, Tame, eta Iratitik gatozenez...

### -Zuretako, Maritxuko gaba da urteko luziena?

Seguruenik bai.

### -Barra atzien, kontu askotaz enteretan zare?

Je, je, je. Kontu larregi entzuten dittugu askotan.


### -Maritxutan, danok gastau eta zuek irabazi...

Bai, baiñe edarto lan egindde.

# Joxe Landa izango da Arrasate Irratiko eguraldi iragarlea

Egubakoitzero, eguraldiaz eta naturaren inguruko beste kontu batzuez berba egingo dugu horretaz asko dakien lagun batekin. Joxe Landa itziartarra da bera, 72 urte ditu eta eguraldi iragarpenak egiten ditu hainbat komunikabide-tan, Herri Irratian, Seguran eta Gara egunkarian, besteak beste. Gaztetatik ditu gustuko Joxek eguraldi kontuak. Hark esandako moduan, aitak asko zekien eguraldiaz, eta aita-rengandik datorkio zaletasuna. Gero, bere kabuz ikasi du liburuak irakurriaz eta asko begiratuta.

Egun, Euskal Herriko Klimatologia eta Meteorologia Elkarteko (EHKME) partaide da, eta gabonetarako libu-



ria prestatzen dabilta. Web orri bat ere badute buruan, eguraldi iragarpenak Euskal Herri osora zabaltzeko.

Itziartarra izan arren, Joxek ezagutzen du Arrasate, anaia bat hemen bizi da eta.

# Amama zaharrenari egindako elkarrizketa asteko errepassoan

Zapatuan, hilaren 13an, asteko elkarrizketak izeneko tarte estreinatuko du Arrasate Irratiak. Zapatu eta domeketan eskainiko dugu tarte hori, eta helburua da astean egindako elkarrizketa batzuk berriro emititzea. Horrela, astean Arrasate Irratia entzuterik izanez dutenek horretarako auke-

ra izango dute astebukaeran.

Oraingo astean, Xabier Zubizarretari alkateari egindako elkarrizketa eskainiko dizuegu, baita Debagoieneko amama zaharrenari egindakoa ere. Martitzenean, 105 urte bete zituen Luisa Agirrezabalek, eta semearekin berba egiteko aukera izan dugu.

Honetaz gain, merkatu txikia izeneko tarte ere berriro entzuteko aukera izango duzue eta baita ere Mikel Aranburuk Hitz eta Pitz saioan egindako elkarrizketa. Hori guztia egubakoitz gauean, zapatuan goizez eta gauez eta domeka goizean.

arrasate  
irratia



## ASTELEHENA - EGUBAKOITZA

- 09:00 Albistegia.
- 09:30 Igo Autobusera.
- 11:30 Albistegia.
- 12:00 Musika.
- 14:00-17:00 Errepikapena.

## ASTELEHENA

- 21:00 Maiuskulaz idatzitako Rocka: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

## MARTITZENA

- 21:00 Hi bizi hadi: Joana eta Karame Manzidor.

## EGUAZTENA

- 21:00 Hitz eta pitz: Mikel Aranburu.

## EGUENA

- 21:00 Mikelenea: Mikel Irizar

## EGUBAKOITZA

- 20:00 Azkenberri.com
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.
- 23:50 Asteko elkarrizketak.

## ZAPATUA

- 10:00 Musika klasikoa.
- 11:00 Asteko elkarrizketak.
- 23:50 Asteko elkarrizketak.

## DOMEKA

- 11:00 Asteko elkarrizketak.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56





Udalatx egun berezia izan zen 1981ekoa, besteak beste, San Juan egunean egin zelako. Itxura denez, On Jose Maria Setien gotzainaren nahia zen Udalatxeko gailurrera igotzea, eta horixe egin zuten San Juan egunean, goizean, argazkian ageri direnak. Zutik, ezkerretik eskumara: Nikolas Agirre, Jose Maria Setien gotzaina, Juan

Bautista San Miguel abadea, Jon Ugalde, Jesus Jauregi, Heriberto Mendizabal eta Iñaki Muxika. Eta makurtuta, ezkerretik eskumara, honakoak: Jesus Larrañaga, Jose Antonio Altuna, Ignacio Baltzategi eta, zutik, Gerardo Jauregi.

Gutziz lainope zegoen Udalatx gaina gure lagunak gailurrera heldu zirenean, ez zen ezer ikusten. Kobazulora Altuna

eta Muxika heldu ziren lehenengo, legatz frijituarekin; Udalak abadea, Tomas, legatza jateko ordurako iritsi zen. Gotzainari apurtxo bat berandutu zitzaion, Debagoienean zegoelako pastorala esaten; baina (eta argazkian ikusten den moduan) hura heldu eta garbi-garbi jarri zen zerua.

Argazkia Udala auzoan dago aterata.

*Udala Mendi, Udala Mendi Euskal aitzik zutuena, Araba alboan, erdi Bizkai ta Erdi Gipuzko aizena. Zeruko Jaunak eukiko al au Beti gaur baizen zuzena, Eu aizen arte zutunik dedin Euskaldunaren izena Udalaiz Zaleak taldea.*

*Argazkia eta berriemailea: Udalaiz Zaleak*

**Ikusi ahal dituzu gure instalazioak?**

**San Andres 10 D.an gaude. Gasolindegia gure parean.**

**TAKOLO AUTOAK**

53 P.K Tel.: 943 77 30 10. ARRASATE



**Instalazio berriak  
Auto erakusketa**

**OPEL**



# AMAGARA

Erdiko kale, 54. Tel.: 943 79 09 09

*Estetika zentroak* **10 urte** *bete ditu*  
**zuri esker**



*Urtez urte, zuen ametsak, egitasmoak eta ilusioak egi bihurtu dira. Izan ere, lantalde profesional batek zerbitzu pertsonalizatua eskaini izan du 10 urte luze hauetan. Hori guztia posible izan da zuen konfiantzari esker.*

*Horregatik guztiagatik,*  
**MILA ESKER**

*Zure ilusioak gauzatzeko lan egiten dugu.*

*M* *Maite* *Elisa*



**RENAULT**

BERRI-BERRIA... BERRI-BERRIA... BERRI-BERRIA...

**RENAULT**  
Traffic



Etor zaitez zure lankide berria  
ezagutzera eta proba ezazu.

**MECA**

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa, 8. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72



Erakuspen  
Kudeaketa  
CGM-01/98E